



TESTUA IRAKURRI AURRETIK

1. Zer dakizu presio hidrostatikoari buruz?
2. Non da handiagoa presioa, ur azpian ala ur azalean?
3. Zer informazio emango digu testuak? Egin zure hipotesiak.

Orain testua irakurri eta ...

IRAKURTZEN DUZUN BITARTEAN

4. Azpimarratu esanguratsuak diren hitz gakoak (ez esaldi osoak).
5. Paragrafoka irakurri eta paragrafo bakoitzeko ideia nagusia idatzi.

PRESIO HIDROSTATIKOA

11000 metroko sakoneran, ur-azalean baino mila aldiz handiagoa da presioa, eta hori dela eta, sakonera horretan, ez da batere erraza bizia egotea. Alabaina, Japoniako zientzialari batzuek egiaztatu dutenez, zenbait izaki gai dira baldintza horietan bizirauteko, ozeanoetako lekuri sakonenetan: Marianetako fosan, Ozeano Barean. Sakonera txikiagoko uretan oso ugariak diren organismo mikroskopikoak dira: foraminiferoak. Sakonera handietako foraminiferoek eboluzionatu egin dute, presio handian, argirik gabe eta zenbait konposatu gabe bizitzeko.




Angela Boto, El País-en argitaratua, 2005eko apirilaren 6a azalean dagoena baino mila aldiz handiagoari, gutxi gorabehera. Berrogeita hamar Jumbo hegazkinek, bata bestearen gainean jarrita, eragingo luketen presioa da.

A.Aguirre De Cárcer, ABC-n argitaratua, 2005eko otsailaren 11

Eromeriak jarraitu egiten du. Gizakiak ahalik eta ausardiarik handi

Fosa abisal horren hondoan nagusi den iluntasunean, ia 11000 metroko ur-zutabe batek beren organismoen eragiten dien presio handi handira moldatzea lortu dute izaki horiek. Izaki mikroskopiko horiek, antza, 110000 kilopascaleko presioari eusten diote, lurren egiten jarraitzen du, eta emakumeak gizonen balentriak berdintzen hasi dira. Azken balentria Tanya Streeter 30 urteko britainiarrak egin du. 2003ko uztailaren 21ean, birika hutseko munduko murgilaldi errekorra hautsi zuen, lasta aldakorreko modalitatean. 122 metrora jaitsi zen Tanya, eta Kubako Deborah Andolloren errekorra (95) luze hobetu ez ezik, lehen aldiz hautsi zuen gizonezkoena (120), Patrick Musimu belgikarrak iaz ezarritakoa. Biharamunean, asteartea, errekorrik berriena egin zuen, pisu konstanteko eta hegatsik gabeko modalitatekoa. Modalitaterik





puruena da: urpekariak hanken indarraz jeitsi behar du, lastarik gabe, eta igo, hondoraino jarritako gidakablea ukitu gabe. 35 metrora jeitsi zen. Aletekin ere pisu konstanteko errekorra du, 71m-an.ezarri

Juan Jose Fernández, El País-en argitaratua, 2003ko uztailaren

TESTUA IRAKURRI OSTEAN

a) Informazio zuzena:

1. 11000 metroko sakoneran, handia al da presioa? Ur azalean baino zenbat aldiz handiagoa?
2. Ba al dago bizia 11000 metroko sakoneran? Zein organismo mota bizi dira bertan?
3. Zenbateko presioa jasaten dute organismo horiek?

b) Ulermen globala

1. Aipatu testuko bi ideia nagusi.
2. Azaldu ea ur azalean eta ur sakonean organismo mota berdinak bizi diren eta azaldu zergatia.

c) Inferentziak, interpretazioa

1. Kalkulatu:
 - Zer presio sentituko duzun 4m-ko sakonerako igerileku bateko hondoraino jeisten zarenean.
 - Zer presioari eutsi behar izan zion britaniar kirolariak lortutako hiru errekorretako bakoitzean. Alderatu fosa abisaleko foraminiferoek eutsi behar dioten presioarekin.
2. Demagun apustu bat egin duzula zure lagunekin, eta uretan 10 metroko sakonerara jaitsiko zarela esan diezula, hanken indarraz soilik, lastarik gabe. Etxera iristean ondo pentsatu duzu esandakoa. Saiatuko al zara? Zergatik?